

# ETXEKO aseguru

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

Enpresa: MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.

Hemen erregistratuta: ESPAINIA Baimen zk.: C-0058



# MAPFRE

Produktua:

“EUSKALTEL MAPFRE

Etxeko Aseguru”

Dokumentu honetan, aseguru honen laburpena emango dizugu. Beste dokumentu batzuetan dago jasota kontratu aurreko informazioa eta kontratu osoari dagokiona, eta haiexek arautzen dute alderdien arteko harremana.

### Zertan datza aseguru-mota hau?

Aseguru hau ETXEBIZITZAK eta etxebizitzan dauden ONDASUNEK (altzariak, bitxiak, dirua eta kreditu-txartelak) izan ditzaketen kalteak estaltzeko da, hainbat arriskurengatik eta hitzartzen diren zenbatekoetan. Gainera, asegurudunari egoera jakin batzuetan ematen zaion laguntza, erantzukizun zibila eta defentsa juridikoa ere estaltzen ditu.



**Zer aseguratzen da?** Aukeran da ETXEBIZITZA bakarrik aseguratzea, etxebizitzako ONDASUNAK bakarrik, edo biak:

#### Kasu guztietan BILDUTAKO ESTALDURAK:

- ✓ Suteak, leherketak, keak, tximistak, hondoratzeak, talkak eta ekintza bandalikoek eta haien ondoriozko prestazio bereziek eragindako kalte materialak (habitaezintasuna, dokumentuak berriz eskuratzea eta salbamenduko, itzaltzeko, eusteko, hondakinak erretiratzeko, eraisteko eta lohiak erazteko gastuak).
- ✓ Honako hauetatik eratorritako kalte materialak eta prestazioak:
  - Fenomeno atmosferikoak.
  - Kalte elektrikoak.
  - Urak eragindako kalteak.
  - Hausturak (kristalak, ispiluak eta aparatu sanitarioak).
- ✓ Etxebizitzan lapurtzea: lapurreta, ebasketa, bidegabe jabetzea eta lesioak.
- ✓ Kalte estetikoak ondasunetan.
- ✓ Asistentzia urgentea eta adituekin konexioa.
- ✓ Etxetresna Elektrikoak Konpontzeko eta Brikolajerako Laguntza.
- ✓ Erantzukizun Zibila, baita etxebizitza errentan emateagatik ere, ohiko, oporretako edo turismoko erabilerarako.
- ✓ Defentsa Juridikoa.

#### BORONDATEZKO KONTRATAZIO-ESTALDURAK:

- ✓ Istripu- eta teknologia-arrisku oro.
- ✓ Familia-Laguntza, honako hauek barne hartzen dituena: osasun-langileak, etxeko langileak edo irakasleak, istripua gertatuz gero; Laguntza Informatikoa, Babes Digitala eta Laguntza online jardueretan (telelana, ikasketak, aisialdia eta erosketak); Telefono bidezko orientazio medikoa eta Animaliei buruzko informazio-zerbitzua.
- ✓ Bidaiaiko laguntza.
- ✓ Etxeko animaliak.

Gainera, badaude beste BERME OSAGARRIAK batzuk estaldura jakin batzuetan sartuak:

- ✓ Sarrailak eta giltzak birjartzea.
- ✓ Buxadurak eta matxurak aurkitzea hodietan.
- ✓ Uholdeak.
- ✓ Hoztutako elikagaien galera.
- ✓ Ondasunetan izandako kalteak, aldi baterako desplazamenduetan.
- ✓ Bitrozeramikak, gainak eta apalak haustea.
- ✓ Etxebizitzaren kanpoaldeko lapurretak.



**Zer ez dago aseguratuta?**

#### Inoiz ez dira aseguratuta egongo honako kalte hauek:

- × Asegurudunak nahita eragindakoak.
- × Gatazka armatuetatik eratorriak.
- × Erreakzio edo erradiazio nuklear edo kutsadura erradioaktibo batetik eratorriak.
- × Agintari eskudunek larrialdi, hondamendi, ezbehar edo kalamitate gisa sailkatutakoetatik eratorriak.
- × Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estaliak.
- × Gaixotasun kutsakorretatik eratorritakoak, bidaiaiko laguntza bermeak eta erantzukizun zibilaren bermeak espresuki estaltzen dituen gertaerakoak salbu.

Era berean, ez daude estalita estaldura bakoitzeko gertakari espezifikoak; horien artean, hauek nabarmentzen dira:

#### KALTE MATERIALEN estalduran:

- × Zeharkako galerak.
- × Erabilitako materialetako akatsek eragindako kalteak edo galerak, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.
- × Lur-asantamendu edo -mugimenduak.
- × Pixkanaka hondatzea edo mantentze- eta kontserbazio-gabezia, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.

#### LAPURRETAREN estalduran:

- × Galera sinpleak.
- × Asegurudunaren zabarkeria larria ageri duten gertakariak.

#### ERANTZUKIZUN ZIBILEAN:

- × Negozioak ustiatzearen edo lanbide-jarduera bat gauzatzaren ondoriozko erantzukizuna.
- × Etxekoak ez diren animaliek eragindako kalteak.
- × Liskarretan edo borroketan parte hartzea.

#### DEFENTSA JURIDIKOAN:

- × Higiezinaren errentamendu eta salerosketa-kontratuen (oinarrizko aukeran bakarrik baztertuta), banku-zerbitzuen eta horniduren erreklamazioak.

#### ISTRIPUAGATIKO ARRISKU OROTAKOAN:

- × Etxebizitzatik kanpo jazotako gertaerak.
- × Azaleko kalteak edo likidoak isurtzeagatik gertatutakoak.



## Bada murrizketarik estaldurari dagokionez?

Bai, hainbat muga dira estalduretan, eta, haien artean, hauek nabarmentzen dira:

! Fenomeno atmosferikoak	40 l/m <sup>2</sup> / m tik gorako euriak eragindako kalteak, eta 80 km/h-tik gorako haizeak eragindakoak. Gehienez 3.000 euro piezako.
! Hausturak	
! Premiazko laguntza	Gehienez 3 orduko eskulana esku-hartze bakoitzeko. Gainditutako orduak eta materialak, asegurudunaren kontura.
! Etxetresna elektrikoak konpontzeko laguntza	2 esku-hartze urteko, eta gehienez ere 3 orduko eskulana esku-hartze bakoitzeko.
! Brikolajerako laguntza	2 esku-hartze urteko, eta gehienez ere 3 orduko eskulana esku-hartze bakoitzeko. Gainditutako orduak eta materialak, asegurudunaren kontura.
! Buxadurak eta matxurak topatzea	Esku-hartze bat urtean. Gehienez 300 €.
! Hozturiko ondasunen galera	Gehienez 300 euro estaldura sorrarazten duen gertakari bakoitzeko.
! Ondasunetan izandako kalteak aldi baterako desplazamenduetan	Gehienez 3.000 euro estaldura sorrarazten duen gertakariko.
! Bitrozeramika-hausturak	Gehienez 3.000 euro piezako.



## Non nago estalita?

- ✓ Espainian.
- ✓ Eta mundu osoan, estaldura hauetako kasu jakin batzuetan:
  - Bidaiako laguntza.
  - Aseguratutako ondasunak (altzariak eta bitxiak) aldi baterako lekualdatzea estalita dago, horiek asegurudunak erabiltzen duen hotel edo etxebizitzaren batean badaude, hiru hilabete baino laburragoa den aldi baterako bidaiaren edo lekualdaketa onduz.
  - Etxebizitzaren kanpoaldeko lapurreak.
  - Erantzukizun Zibila, atzerrian gertatutako egitateei aplikatzeko, noizbehinkako lekualdatzeak badira, eta ez badute hiru hilabetetik gorako iraupena jarraian.



## Zein dira nire obligazioak?

- Asegurua ordaintzea.
- Aseguratzailerari behar duen informazio guztia ematea, kontratua formalizatu aurretik arriskua balioetsi dezan.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean kontratazioan emandako informazioan aldaketarik gertatzen bada, horren berri ematea aseguratzailerari.
- Kalte-ordaina edo beste prestazio batzuk eragin ditzaketen gertakarien berri ematea aseguratzailerari, haien berri eman denetik zazpi eguneko epean, kalteak egiaztatu eta baloratzeko behar den informazioa eta dokumentazioa aurkeztuz eta aseguratzailerak horretarako izendatutako teknikariei jarduteko aukera emanez.



## Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzera. Ordainketa urtekoa izango da, kontratuan besterik ezartzen ez bada, eta zatitzea itundu ahal izango da. Ordainketa aseguru-kontratuan kasuz kasu erabakitzen diren bitartekoen bidez egin ahal izango da, dela banku-helbideratzea, dela kreditu-txartela edo zordunketa, dela aseguru-etxeak onartutako beste bitarteko batzuk.



## Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Estaldura kontratuaren Baldintza Partikularretan ageri den datan hasten eta amaitzen da, luzapenik ez bada, behintzat.



## Nola desegin dezaket kontratua?

Kontratatzailerak kontratua luzatzearen aurka egin ahal izango du, indarrean dagoen epea amaitu baino lehenago gutxienez, inolako arrazoirik alegatu gabe.